ERREPORTAJEA KANPAI DOINUAK · GEHIGARRIA KILIBARREN · KULTURA AIRE LIBREKO ZINEA UZTAILAREN 7AN HASIKO DA · KIROLA IÑAKI KONDEK IRABAZI DU NAHASTE BORRASTE PROBA HERRIKOIA

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001eko ekainaren 29a/VIII. urtea/369. zkia

120.500



# Kanpaijoleen ofizioa desagertzear

"NOLAKO KANPAIA, HALAKO SOIÑUA" (esaera zaharra)

# 54 MINUTUTAN 365 EGUN KENDUKO DIZKIOGU GAINETIK ZURE AUTOARI EZ ERREPRODUZITZEKO MATERIALA

AUTOAREN LEHENENGO URTEKO EGUN GUZTIAK PASATUKO DIRA 54 MINUTUTAN. TARTE HOR1XE BAITA LEHENENGO AZTERKETA SAKON-SAKONETIK EGITEKO BEHARKO DUGUN DENBORA, AURREZ ORDUA HARTUTA EDO HARTU GABE. ETA HORI DA DOI-DO1GUK KOBRATUKO DIZUGUNA. EZTA M1NUTU BAT GEHIAGO ERE. ZUK BADAKIZU ZER TRATU EMATEN DIZUGUN. JAR EZAZU, BERAZ, ZURE NISSAN-A ESKURIK ONENETAN. BERME ETA KONFIANTZARIK HANDIENA EMANGO DIZUTEN ESKUETAN. ZJUR AG1NTZEN DIZUGU 54 M1NUTU BAKARRIK BEHARKO DITUGULA ZURE NISSAN-AREN LEHENENGO URTEKO AZTERKETA EGITEKO.

[ SEE THE CHANGE

NISSAN RAPID

m(A\--)

**ALDIB1 AUTOAK, S.A.**

Olaso,23 - 20870 ELGOIBAR - Tel. 943 74 20 37 - www.aldibielgoibar@nortekar.com

Gidaketa-baldintza normaletan urtean, gehienez, 10.000 km egiten dituzten diesel motorreko Pnrnera eta Terrano II modeloentzat, urtean, gehienez, 15.000 km egiten dituzien gasolinazko matorreko ibilgaluentzat, eta urtean, oehieneL 20.000 km eniten dit1,7tPr4 rliPCnl rrirkl,r,krn Alrn.ra nfa Airna•ra Tinn 11-511.-■=1■■=nt7.1- halin rLanhnrn



## Bare-bare

Neuronak baretu egin zaizkit. Albiste diren gaiak oraindik badira, baina horien gainean sakontzeak izugarrizko nekea eragiten dit une honetan. Behar bada, urtero urtero, sasoi honetan gertatzen zaidan gauza da. Udan sartu berri gara, San Juan sua izan da nagusi joan den asteburuan Euskal Herriko plaza eta bazter guztietan. Eta suarekin batera nire burmuinek jai usaina somatu dute. Jaiak dira eta sasoi honetako protagonista nagusiak. Jaiak eta.... itsasoa, hondartzak, eguzkia, entsalada eta atuna.

Opor usaina nonahi. Ume guztiak kalean daude. Ez dugu etxera joateko momentua ikusten eta gainera, zertarako? Telebista kate guztiek eskaintzen diguten udako programazioa ikusita, hobe gaude gauden lekuan eta lagunartekoak luzatu egiten zaizkigu. Gerizpe freskoetan urteko siestarik onenak, liburu bat lasaitasun osoz irakurtzeko parada. Barealdia eta festa giroa. Txanponaren biak eskaintzen dizkigu udak. Alderik beltzena: karabanak, beroa, jendetza toki gehienetan, kotxea aparkatzeko lekurik ez, terraza guztiak beteta.... baina udan gaude. Beraz, utz ditzagun atzean urte osoko neke eta presak. Eta disfruta dezagun sasoi honek ekartzen digun onenarekin. Bare-bare, pilak kargatu artean, neuronek ere oporrak behar dituzte-eta ondoren bere onena eman dezaten.

Olga Untzilla



# Curriculuma prestatzen

Badatoz udako oporrak. Eskerrak, ba zen garaia.
Batzuk lehenago hartuko dituzte, beste batzuk beranduago.
Horietako batzuk zatikatuta hartuko dituzte, beste askok denak batera.
Batzuen oporrak luzeak izango dira, beste batzuenak, motzagoak.
Batzuk oso urrutira joango dira. Beste batzuk, ez horrenbeste eta asko, herrian bertan geratuko dira.
Bakoitzak bere erara pasako ditu oporrak. Ahal duen eta nahi duen bezala.
Batzuk nekatuta bueltatuko dira.
Beste batzuk aspertuta.
Asko, guztiz erlaxatuta.
Beste asko, guztiz estresatuta.
Baina oporrak bukatzen direnerako denok edukiko dugu prest, egin ditugunak, ikusi ditugunak eta sentitu ditugunak agertzen dituen "2001 Udako Curriculuma".
Hau ez duenak, ezingo du azaldu lagunartean, opor benetan zoriontsuak pasa dituela. Beraz, badakizue lagunok, ekin lanari?

Unai Argarate

KeXak ........ 5
MOtZ MotZ ........ 10
gehigarria ........ 13
kiROlAk ........ 20
aGenda ........ 24



# Urruzunoren begi ezkutua

Iluntasunak egun berriaren lehen argiei bide eman eta lekukotzat hartu gaituenoi, unibertso komun batean batzen zaigu ikuspegi aniztasuna.

Lanerako bidean burua altxa gabe doanarentzat ez bezala, azterketa garaian harrapatutakoak, lo gutxi baina esperantza ugariz, lehen argiei erreparatzeko beta hartu du, edo lo ugariz eta esperantza gutxiz agian.

Egunsentiaren edertasunaren arras toan esnatutakoak antzeman dio bai kale zuloaren zirrikituetara baino, errazago hedatzen dela eguzkia naturaren zabalera.

Ohi haino goizago iratzartzean, asmo berrien kitzikak ezberdin ikusi arazten dizkizu kale oraindik bete gabeak, eta eguraldiak egun goibel edo sargori baten traza zeruan marrazteko duen ziurtasuna nahi zenuke, egunerokotasuna hausteko.

Bestela, jaien eta musikaren zalapartaz goiza kateatu dugunontzat, botila hustuen eta etxeratze nekatu baten sinonimo da egunsentia, itzali berri den mozkorraldi batena edo dekoratuz soilik aldatu diguten festarena. Etsipen berrien isuri edo amodio zaharren amets.

Mikel Artola

## IKASTOLA "GURE IKASTOLA"

Herri honen ilusiotik jaio zen ikastola, gure kulturaren iraupena bermatu asmoz herri xehe baten kemen eta borondatetik.

Hazi eta garatzeko duen desirari esker, eta lantalde prestu bat Iagun, gure haurrak giro euskaldun batean hezi ditu ikastolak. Inguruko gainontzeko ikastetxe gehienek eskaintzen duten irakaskuntza mailarekin pareka daitekeen plangintza batekin abiatu eta hazi da, azken urteotan, garapen prozesu etengabe horretan aurrera pauso bat emanez gainera. Bere ibilbidean zehar jarraitu duen erronka gainditu asmoz, Batxilergoa ikastegi berean egiteko aukera eskaintzen digu orain... arazo larriak izaten ari da ordea gutxieneko ikasle kopurua osatzeko, "gure" ikastolari, Batxilergoa defizitarioa gerta ez dakion beharrezkoa den kopurua. "Gure" diot, kooperatiba hau osatzen dugun guztiok baikara bere egonkortasun moral eta ekonomikoaren erantzule, nahiz eta azken aldi honetan, ideia hau ahazten dugunaren susmoa dudan.

Argi gera dadin nahi dut, ez naizela ikastetxe baten alde jartzen beste baten gutxiespena hobetsiz, harro sentitzen naiz gure heniak maila eta arlo desberdin guztientzako irakaskuntza eskaintza ikastegi desberdinetan gauzaturik duela ikusten dudanean. Ostera, guri, Batxilergoa non gauzatu erabakitzeko garaian diren haurren gurasooi, bai une honetan, eta baita datozen urteotan ere, bidea zabaltzea tokatu zaigu; bizitzan, sinesten dugunaren aldeko apustua egin beharrean aurkitzen garelako uneoro, eta gure seme-alabak ikastolan izan ditugunok, ziur nago sinesmen osoa dugula ikastolarengan. Gure Ikastola.

A.G.
NAN 15356609


ASTEKARIA
BaRpen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizdatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E•maila:
barren@Hopagunea..com
Helbide informatikoa:
wwsv.topagunea.com/barren
Anorrkagrzomea
Eigorbarko Izarra
Efil ELGOIBARKO AAAAAA

LAGUNTZAILEA Eigotarko Udala ZUZENDAFdA Eir Aizpuru KAZETAMAK IratiAgirreazaldegi, Asier Orbea PuBUZSrATEA Andoitz Agirtegemezkoda MAKETATZAILEA Bea Ansola AININISTRALOA Arlaia Podrigez GERE111710. Jon Peli Uriguen. KOLABORATZAILEAK Afflaia LaliZ, Unai Argarate, Eguzline Aranberri, Loma Perez deAJbeniz, Jokm Marlinez, Aitor Zabaleta, Leire Urkidi, Olga Unzilla. Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Iker Maguregi, Jon Gurrutxaga, Jon Eugi, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ES0.L1311 Gotzen Garale INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRACIA 4.000 ate LEDE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlarazako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundtaako aldizkaria,*



7.11:t kutxa

kDANOBAT L14.1.110, FIA9111"HIA

001111 CatUPO DANCUI

1117.419TA

## 1101.1)31

• **Bernardo Ezenarro** kaleko bizilagun batek deitu digu bertako **parkeko zuhaitzak moztu** dituztela eta hori ez litzatekeela egin behar esanaz. "Eskabadorarekin lanean ari dira eta ikaragarrizko zuloa egin dute bertan. Gainera, zuhaitzak bota dituzte. Ez dago horretarako eskubiderik".

Honen arrazoia jakiteko Udalera deitu dugu eta saneamendurako obrak direla esan digute: "San Rokeko depositoaren usain txarraren arazoa konpontzea da betebeharretako bat eta konponduko bada, zuhaitzak kendu beharra zegoen".



• Gizonezko bat etorri zaigu BARRENera **San Frantzisko iturriari kanila falta zaiola-eta:** "iturri hori hiru kanilekoa da eta denbora darama birekin bakarrik. Zergatik ez diote hirugarren kanila ipintzen?".

Guk Udalera deitu dugu eta honako hau esan digu arduradunak: "Aspaldi eskatu genituen kanilak, Bartzelonatik bidaltzen baitizkigute. Baina oso bereziak dira, antzinakoak, eta denbora gehiago itxoin beharko dugu".

## 11111Ait

• Jubilatu hatek **Kultur** Etxe ondoko **parke** moduko lekuan **jarlekuak ipintzea** komeniko litzatekeela aipatu digu: "Leku horretan **ez** da inor egoten eta bankuak ipiniz gero, jubllatuak egoteko, adibidez, leku aproposa izan leike".

• Antonio Arrillaga kaleko bizilagun batek pinuaren **ondoko jarlekua apurtuta** dagoela esan digu: "Denbora asko darama apurtuta eta norbaitek konpontzeko ardura hartu beharko lukeela uste dut. Egun eguzkitsuetan batik bat, umeekin-eta jende ugari egoten baita leku honetan, itzala dagoelako eta toki lasaia delako".



Barrak, Birrak eta Barreak



# Kanpa

*Kanpaia musika tresna da, funtzio bereziak dituen instrumentua. Berri* ematea *da bere eginkizunetariko bot, edo garai batean bazen behintzat. Orduen berri ematen digu kanpai doinuen esanahia apenas ezagutzen dugunoi, jai egunak, elizkizunak, suteak, hiletak...* iragartzeko *erabili ohi ziren garai batean. Elgoibarren Parrokialco kanpaiak dira ezagunenak eta entzunenak. Ibero anaiek 1757cn amaitu zituzten kanpandorreko kanpaiak. Garai batean, elgoibartarrek sokei eragiten zietenean soinu garbiagoa omen zuten, serioagoa, baina kanpaijoleei elektrizitateak hartu zien lekukoa. Orain *****arcluratzen* da *mekanikoki kanpaiak mcrrtxan jartzeaz. Hala ere, oraindik orain badugu inguruetan kanpai jolerik Altzolako Paco Isastik jaiegunetan Altzolako elizako kanpaiak danizan jartzen ditu sokei tira* egi*nez. Elgoibarko Parrokiako kanpaien inguruko xehetasunak eta Altzolako Paco "campanero"-ren hitzak jaso ditugu erreportaje honetan.*



## Din-din kan aia

Goiko-Errota aldera ematen du San Antoni eskainitako kanpaiak. Sarritan urtu izan dute, eta azkena 1932koa da. Doinuz biziagoa da. Dandanarekin batean, erritmoarekin joz, melodia alaia sortzen dute. Larunbatetan jo ohi zen langileei jaieguna gertu zutela adierazteko, baita meza nagusiaren aurretik, bezperetan eta auzoko jaietako erromeriak laguntzeko ere.



## Santa Barbara Kanpaia

Estaziora begira dagoen balkoian kokatua. Izen bereko santaren omenez egina. Kanpai guztietan txikiena. Antonio de la Hoiak egin zuen 1826an. Bakarrik jotzen zutenean bederatziurrenak iragartzea zen bere funtzioa.



## Dun-dun kanuala

Balkoi nagusian dago, Plaza Handiko zaindari herritarren laudorioen zai. Hau omen da kanpairik esanguratsuena. 1673an Martin de Ingagak eta Francisco Sautok San Migelen omenez egin zuten. Olasoko Parrokiakoa omen zen kanpai hau eta "Olasoko kanpaia" ere deitu izan diote. Kondairaren arabera, frantsesek kanpai barruan sartzen ziren adina zilarrezko txanpon eskaini zituzten kanpaiaren truke, baina eskaintzak ezezkoa jaso zuen. Beste kanpaiekin batera jotzean fondoko doinutzat har zitekeen. Bakarrik jotzen zutenean, ordea, erreguen adierazle edo apaizak ekaitzarengandik babesteko egin beharreko konjurioen adierazle zen. Egunsentia ere iragartzen zuen elgoibartarrak Angelusa errezatzera gonbidatuz. Gauza bera egiten zuten eguerdian eta iluntzean ere, baina goizekoa berezia zen, lehenengo kanpaikadaren ostean beste 33 jotzen baitziren, Jesukristok hil zenean zuen adina gogoraraziz. Gauez su kanpaiarekin batera arimen doinuak jotzen zituzten.

## Su kanpaia

Kanpandorreko goi partean dago 1740ko kanpai finkoa. Familia sakratuaren izenean jarri zuten. Sutea iragartzeaz gain, agonia kanpaia ere bazen. Erlojuaren orduak ere honek adierazten zituen.

Herritar bat hiltzen zenean 14 kanpai hots baxu entzuten ziren herrian eta haiek inpresioa sortzen omen zuten. Hamalaugarrenaren ondoren beste kanpaikada bat entzunez gero, hildakoa baserritarra zen seinale. Bestela, kaletarra. "Oiluana" deitzen zitzaion azken kanpaikada honi, apaizari oilasko bat ematen baitzioten. Dan-dana erabili ohi zen umeren bat hiltzean berria herrian zabaltzeko: mutila bazen 31 kanpaikadako 3 dei izaten ziren, neska bazen, berriz, 2. Helduen kasuan, dun-dunak betetzen zuen berriemaile funtzioa, su-kanpaia tartekatuz.



## Dan-dan edo eski l o ia

Herriko erdigunera begira, San Bartolomeren omenezko kanpaia dago. Handienetarikoa da, 1806koa. Poliki eta modu serioan entzuten zuten herritarrek jaiegunen bezperan. Gero haurren hileta elizkizunetarako ere erabili izan zen, "aingeruaren kanpaia" izena hartuz.



## Paco Isastl, ALTZOLAKO KANPAI JOLEA

Bizi osoan izan da Altzolako kanpaijolea Pako. Gurasoei lagunduz hasi eta berak jasa zuen betebeharra, eta gaur egun ere Sakristaua den aldetik berak jotzen ditu kanpaiak, egun berezietan. Erlojuarekin batera doazen kanpaiak mekanizatuta daude, eta meza aurretik ohiko egunetan apaizak jatzen ditu. Kanpai joleen ofizioa desagertzear dela-eta Pacorekin lanbide hani buruz jardun dugu hizketan.

## LEHEN

1955. urteko San Bartolome jaietako programan Luis Maria Ezenarrok Elgoibarko kanpaiei buruz idatzi zuen. Banan-banan ematen du kanpandorreko kanpai bakoitzaren doinuaren zein erabileraren berri. Inork gutxik jakingo du aurretik erakutsi ditugun kanpaiek izenik dutenik edo Elgoibarren kanpai bakoitza santu banari eskainia dagoenik, edo kanpaijoleak hainbesteko lan zuenik ere.

## ORAIN

Gaur egun ez dago kanpanerorik EIgoibarko Parrokian, elektrizitateak mugitzen ditu kanpaiak, baina bada kanpaiak mugimenduan jartzeko botoia zanpatzen duenik. Bestalde, gaur egun jaiegunetan kanpaiak modu berezian entzuten dira oraindik. Kanpai bakoitzak bere egun bereziak ditu eta kanpai ezberdinen doinuek bat egin ohi dute beste egun batzuetan:

### Santa Barbara

Abenduko igandeetan, Garizumako igandeetan, Erramu igandean, Ostegun Santuan (aintza kantatzen den bitartean), Hildakoen Egunean eta urteko gainontzeko igandeetan.

### Santa Barbara, Dan-dan eta Din-din

Gabonetako igandeetan, Errege Egunean, San Anton Egunean, Pazkoaldiko igandeetan, Jainkoaren Goraldian, Pentekosteetan, Trinitate igandean eta Corpus Christi Egunean.

### Dan-dan eta Din-din

San Jose, San Pedro, Santiago, San Inazio Egunetan, Amabirjinaren egunean, Domusantu Egunean eta Kontsezio Egunean.

### Gurtiak

Eguberri eta Urteberri Egunetan, Pazko Gau Santua (aintza kantatzen den bitartean), Pazko igandean (mezen aurretik eta prozesioaren ihilbidearen bitartean), San Bartolome bezperan eta Egunean bertan.

Ostiral Santuan ez da kanpairik jotzen

**Nola ikasten da kanpaia jotzen?**

Ez da ikasten, berezko abilidadia euki bihar dau bakoitzak. Betarrixa piska bat ein, kanpai bati bizkortxuao eman, bestiari gitxiao, ohitxuria hartzia da kontua.

**Kanpaijoleon lana oso lotua omen da.**

Sasoi baten astegunian goizian jotzen zan, Kuntzian Angelusa ere bai, jai bizperetan... lotura haundixa zan. Oin meza aurretik, ordu erdi lehenao jotzen da.

**Kanpai doinu ezherdin asko dago. Zuk zein duzu gogokoen?**

Hiru batera jotzen dianian, repikia eitxen jakona; bata sosiuz, bestia bizkorrau. Jai haundixetan jotzen da hori, San Juanetan adibidez.

**Zer behar du kanpaijole on batek?**

Belarri ona, piska bat musikua izatia. Mutiok batek behin esan zaban bere aitxa musikua zala eta soka bakarreko instrumentua jotzen zabala, kanpaia zan harek jotzen zabana.

**Gogoan al duzu anekdotarik?**

Behin kanpaiak jotzen hasi eta ez zan zaratarik entzuten. Zer izango zan begira hasi eta konturatu ginan kanpaian mingaina apurtu eta kaminora jausi zala.

**Familian ba al da eginbehar honetan jarraituko dizun inor?**

Ez dot uste. Nik ezin dotenian alabak-edo jotzen dau, baina segitxuko dabanik ez dot uste. Hala ere, egongo da joko daban bateron bat. lehen erlojuari ere kuerdia eman bihar izaten jakon eta ni kanpora juten banintzan arduria bateron bati lagatzen nion.

# Clucora dirulaguniza hidaltieko errifa antolatu da Hgolbarren

## Haurrentzako jantokiak antolatzeko, jatekoa erosteko eta adopzioa bultzatzeko erabiliko da dirua

Peruko Cuzcora dirulaguntza bidali asmoz kanpaina berri bat jarriko du martxan datorren astean Misqui taldeak. "Quechuaz gozoa esan nahi du. Umeek, nahiz eta mendikoak izan, modu edukatuan "misqui" eskatzen dute. Gure helburua egoera gogorrean bizi diren haurrei gozamen piska bat eramatea da", esan digu herri haietako egoera gertutik ezagutu duen Gema Agirregomezkorta taldekideak,



*Gema Agirregomezkortak gertutik ezagutzen du Cuzcoko haurren egoera, bi aldiz izan baita bertan. Argazkian, Gema mendiko haurrekin.*

Errifa

Herriko dendetan, opariak jasoko dituzte eta sorta bat osatuz Ortuetaneko eskaparatean jarriko dute ikusgai. Hau lehenengo saria izango da eta bi afari ere zozketatuko dituzte. Errege bezperara arte salduko dituzte txartelak 100 pezetaren truke, guztira 50.000 errifa. Gemaren esanetan, "gure asmoa Elgoibartik kanpora ateratzea da, bestela zaila da hainbeste rifa saltzea". Iazko kanpainan 200.000 pezeta inguru batu zituzten eta aurten gauzak ondo joanez gero, 5 milioi eskuratzea da beraien nahia. Bildutako dirua batetik Aita Rufino Garciaren misiorako izango da, jantokietarako eta eskoletarako erabiliko da. Baina oso garrantzitsua da apadrinamentuak egitea. Bestalde, moja batzuen umezurtzen bailara baterako ere batu nahi dute dirua. "Umezurtzak 18 urtera arte egoten dira han eta jendeak ume oso txikiak bakarrik adoptatzea nahi dituenez, behin eta berriz esaten ziguten familiak topatzeko berarentzat".

Kanpaina honetan laguntzeko hainbat modu daude, batetik errifak erostea eta bestetik, txartelak saltzen laguntzea. Lan horretan aritu nahi duenak telefono honetara dei dezake (943 74 03 31-Gema).

## 180 9002 kafitate agiria eskuratzeak emaitza onak ekarri dizkle Institutuko ikasleei

Elgoibarko Institutuak orain dela 2 urte kalitatezko hezkuntza eskaintzeko konpromisoa hartu zuen eta bere fruituak jasotzen ari da. Hilabete honetan, ISO 9002 ziurtagiria zabaldu dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Etengabeko Heziketan eta Okupazionalean. Elgoibarko Institutua kalttate sistemetan aitzindaria da hezkuntza munduati, Euskal Herrian eta Estatu osoan, DBHn. Batxilergoetan, Lanbide Heziketako Zikloetan, Etengabeko Heziketan eta Okupazionalean, ISO 9002 lortu duen ikastetxe bakarra baita. Kalitatezko hezkuntza eskaintzeak izan du zerikusirik ikasleen emaitzetan: "Selektibitateko eta EGAko azterketetan ikastetxe honek urtez urte maila ona eman du eta emaitza horiek hobetzeko bidean daude. Lan munduan ere kolokazio maila oso altua da", esan digute Institutuko arduradunek.



## Hiru udaltzain berri ditugu herrian

Badira aste batzuk herrian hiru udaltzain berri ditugula. Jose Antonio Ruiz, Ander Loiola eta Jose Ramon Ortuoste elgoibartarrek lan poltsa baterako izena eman astean, oposaketa bidez eskuratu dute udaltzain lanpostua. Udaltzaingoan bi baja egon dira, eta bestalde, lanastea 35 ordutara murriztean, udaltzainen taldea osatzeko beharra ikusi zutela esan digu Javier Oñederra sargentoak. Beharra dagoen artean arituko dira hiru herritar hauek Elgoibarko kaleetan lanean, eta Udaltzainburuak adierazi digunez, momentuz behintzat ez dago udaltzain gehiago hartzeko asmorik.

## Jende asko eta jai giro polita izan dira Altzolako San Juanetako protagonistak



Altzoiatarrek ez dute aspertzeko astirik izan asteburuan. Larunhatean San Juan jaietan sartu eta festa giroan ibiIi dira asteartera arte. San Juan zuhaitza jarri zuten salbea kantatu ostean, eta astebetez-edo bertan egongo omen da. Surik eta musikarik ere ez zen falta izan. Zezentxo eta poniek ere ikusmina piztu zuten eta izan zen torero doaiak erakutsi zituen allzolatarrik. Haurrek eta jubitatuek parkearena edo sardina jatearen aitzakian jaiez gozatu zuten. Antolatzaileen esanetan, giroa oso ona izan da eta auzotarrek bat egin dute ekitaldietan parte hartzeko.



## Haizea emakume taldekoak Santanderrera egin zuten irteera

Haizea Emakume Taldeko 35 lagun inguru Santanderren izan ziren egunpasa. Somo eta Pedreña bisitatu zituzten besteak beste eta Magdalenako Plazioan ere izan ziren (argazkian). Santanderren bertan bazkaldu zuten, eta jatordua ederra izan zela kontatu digute. Oso ongi pasatu omen zuten eta hurrengorako herriko emakumeei gonbitea luzatu nahi diete, gehiago elkartzeko asmoz.

## 81 ikaslek jaso dute IMHn Heziketa Zikloetako ikasturte amaierako titulua



Joan den ostiratean Heziketa Zikloen kurtso amaierako ekitaldia egin zuten Makina Erremintaren Institutuan. Azken ikasturteko 81 ikaslek tituluak jaso zituzten. Hauetatik gehienek praktikak egin dituzten enpresetan jarraituko dute lanean. Ekitaldian ikasle, irakasle eta gurasoez gain, IMH patronatuko kideak ere izan ziren. Gillermo Garate alkatea, Xabier Ortueta AFMko ordezkaria. Ramon M. Murgia Hezkuntza Saileko ordezkaria eta Joxean Egaña 1MHko zuzendaria, hain zuzen ere.

## "Betimun saioko finalean ikusi ahal izango ditugu Elgoiharko 10 gaztetxo gaur iluntzean

Atzo "Betimu" saioa ikusi zutenek jakingo dute elgoibartarrak ETB leko lehiaketa honen finalera heldu direla. Gaur iluntzeko 19:45ean botako dute telebistaz finaleko saioa eta gaztetxoak dantzan eta kantuan ikusteko aukera izango da. Sari mordoxka jaso dituzte Dorletak, Anek, Mirianek, Maitek, Mirenek, Eneritzek, Jonek, Jon Anderrek, Asierrek eta Unaik. Aurrez grabatuta dagoenez, batzuk badakizue emaitza, baina beste batzuk zain egon beharko duzue gaur iluntzean finala irabazi zuten edo ez jakiteko.





INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 . 3.sotoa 11 943 74 36 52 74 27 89
KONILNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

1*Anchajstegui s.a,
ZERAMIKAK
ESPOSIZIOA, ALMAZENA ETA BULEGOA:
Olaso industrialdea
Olasope, 5
20870 ELGO[BAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71 - Faxa: 943 74 37 11

### Afrikatik inolz haino etorkin gehiago sartu da Estatuan

## NOLA LAGUNDUKO ZENIOKE AFRIKAKO ETORKIN BATI?



**ESTEBAN GONZALEZ**
**66 urte, jubilatua**

Etxean ez nuke hartuko, bakarrik bizi naiz eta ez litzaidake gustatuko. Lana erraz aurkituko luke, nahi izango balu behintzat, eta nik lana bilatzen lagunduko nioke.

**KARMEN IRIONOO**
**41 urte, administraria**

Guk lagundu arren, aldatu biharrekua legia da eta hori gobernuan esku dao. Estranjeria lege berrixa atara zaben, baina nahiko txapuza da.





**JUANITA ARGARATE**
**64 urte, etxekoandrea**

Lehenengo, onartu egin behar ditugu, hemen egoteko eskubidea dutelako. Gero lana balego, lana emango nioke, edo bilatzen lagundu.

**MANUEL MARTINS**
**56 urte, pentsionista**

Ni ere inmigrantea naiz eta badakit zer den egoera horretan egotea. Laguntzeko prest nago baina hori ez dago berritarren esku. Espainiako gobernuak bakarrik ez, Marokokoak ere zerbait egin beharko luke.





**MARIA MAIZTEGI**
**75 urte, etxekoandrea**

Diru askorik ez euki arren borondatetsua naiz, eta diru piskatekin Iagunduko nioke. Handik ezer gabe etorri eta hemen gaizki ikustiak pena ematen dau.

**PERO TESOURO**
**35 urte, metaleko langilea**

Nik lana bilatzen lagunduko nieke, eta beharrezkoa balitz, etxean ere hartuko nituzke. Edozeinek lagundu diezalekeela uste dut.



ELENA
fileapaindegia
Depilazio Elektrikoa


**Mandiola Egurrak S.L.**
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 943 74 12 56 - (mabila) 609 53 23 83


# Osasunean adituak

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda (Medikuntza naturala, E de Bach, masaia, makrobotka, yoga)

............................ San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

........................ Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda (Osasun naturalaren zure zentroa Elgoibarren. Informa zaitez)

............................ San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

........................ Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

**Ikus** (Optiko-optometrista)

....................... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

........................ Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri** (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

....................... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

........................ Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**

................. San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**

........................ Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

**Ibiltzen**

.......................... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

....................... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**Iñaki Rivero**

.......................... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

........................... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

O ş CDI -S n a

r

## BEGIAK EGUZKITIK BABESTEKO

Babes filtroa, ozono geruza, txikituz doan heinean radiazio ultrarnoreek gora egiten dute, eta horrek begietako gaitzak ekar ditzake. Kornean zauria sortzen du, eta ondorioz, keratitia. Gero katarata eta azkenik, erretina kaltetu dezake. Radiazio infragorrien maila energetikoa baxua da, baina opakotasunak eta kataratak sor ditzakete kristalinoan eta gaitzak erretinan. Hainbat lanbidetan aritzen direnek (fundizioan, labean, soldaduran) arrisku gehiago dute.

**Sintomak**

*Argi ultramore gehiegi:*
Fotofohia, gorritasunak eta malkoak.
*Espektm ikuskor gehiegi:*
Brretina erre dezake eta bistaren zorroztasuna gutxitu.
*Argi infragorri gehiegi:*
Kristalinoan eta kornean dute eragina.

**Egozkitik babesteko filtroak**

Organikoa zein minerala izan begiaren babesa ziurtatu behar du, eta hon'etan ez du zerikusirik koloreak.

**Marroia:** Miopeentzat. Koloreen pertzepzioa aldatzen du, baina kontrasteak hobetu.

**Grisa:** Edozeinentzat. Koloreak diren bezala ikusten ditu begiak.

**Berdea:** Hipermetropeentzat. Apenas aldatzen dute kolorea.

**Horia:** Gauez gidatzeko. ltsutasuna ez du erabat ebitatzen, baina kontrastea handituz, lausoa gutxituko du.

Eguzkitako betaurrekoek erabat babestu behar dute begia izpi ultramoreen aurrean. Minerala edo organikoa izateak eta koloreak ez dute garrantzirik. Kolorerik gabeko betaurreko baten kristalak babes dezake begia. Era berean egon daitezke begia babesten ez duten kalitate eskaseko kristal ilunak. Begia pupilaren kontrakzioz babesten da, baina kalitate gutxiko eguzkitako betaurrekoak jantziz gero, begia lasaitu egiten da eta izpi ultramoreei sartzen uzten die, begia kaltetuz.

**Ikus Optika**

Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra

*Txamin Zabala 47 urteko lekeitiorra da. 23 urte daramaiza Eigoibarren. Hainbat urtetan itsasotik urrundu bada ere, ezin izan dio bere benetako afizioari uko egin, eta berriro ere uretan barneratu da. "Eguzki Jaia" enpresa jarri du martxan, eta izen bera ipirri dio erosi berri duen itsasonfziari. Luzeran 9 metro neurfzen ditu, eta hamar lagunenizat prestatua dago. Enpresa honen helburua jendeari Euskal Herriko kostaldea erakustea da, eta horretarako irteera desberdinak prestatu ditu Txomin Zabalak. Euskal Herrian gauza berria denez, ez daki jendeak nola erantzungo duen, baina bera ibwropentsu agertu da.*



# ultsasontzlz Euskal HerriKo kostaic ea erakustea ca gure helburua

O IN ZABALA

■ **Zertan datza Eguzki Jaia proiektua?**

Proiektu hau aspalditik neukan buruan. Duela urte eta erdi hasi nintzen gestio guztiak egiten, eta dagoeneko martxan jarri dugu. Gure helburua jendeari egun desberdin bat pasatzeko aukera ematea da, hau da, Euskal Herriko kostaldea ezagutuz, egun bat itsasontziz nabigatzen pasatzea.

**ffi Zer da itsasoa zuretzat, afizioa ala ofizioa?**

Beti ibili izan naiz itsasoan, Marina Merkanteko Kapitaina naiz eta denbora luzez itsasotik aldendu nintzen arren, duela sei urte berriro itzuli nintzen. Txikitxikitatik nire afizioa itsasoa izan da. Lekeitiarra naiz eta itsasoarekin harremanetan bizi izan naiz beti. Urte asko pasa nituen arrantzan, baina orain afizioa da. Nire nahia, hain gustuko dudan gauza bat besteei helaraztea da.

■ **Zer eskaintzen diezu bezeroei?**

Bi aukera eskaintzen dizkiegu: egun osoko irteerak egitea, edo bestela, egun erdikoak. Bestalde, bi irteera desberdin antolatu ditugu: Urdaibai inguruko kostaldea ezagutzea izango litzateke lehenengo aukera. Goizean Zumaiatik irten Bizkaia aldera, bertako portuak ikusi, Elantxobe ezagutu, Ea eta Ispaster inguruko hondartzak ikusi; eta azkenik, Lekeitiora iritsiko ginateke. Bertan bazkaldu, eta arratsaldez Ondarru eta Mutrikutik pasatuz, Zumaiara itzuli. Bigarren irteera Donostia aldera antolatu dugu. Pasaia San Pedro eta Pasaia San Juan bisitatu, Kontxan bainua hartu, Acuariuma ikusi eta Zumaiara buelta. Animatzen den jendeak oso ondo pasatzeko aukera izango du, gure portuak ikusiko dituzte, eta inor ez dagoen tokian bainua hartu ahal izango dute. Azken finean, egun bat txalupan pasatzeko aukera eskaintzen diegu. Honetaz gain, arrantza gustuko dutenentzat, atunak harrapatzera joateko irteeraren bat ere prestatzekotan nabil. Kanpoko enpresa gizonekin edo norbaitekin ondo gelditu nahi duzun okasioetarako ere aproposa da.

• **Hemengo eguraldia kontuan izanik, izango al du erantzunik proiektuak?**

Euskal Herritik kanpo horrelako enpresa ugari dago. Mallorcan, Alakanten eta Kanariar Irletan ibili izan naiz itsasoan irteerak egiten, baina Euskal Herrian lehenetarikoak gara, Orain arteko guztiak belauntziak dira, eta horiek haizearen menpe daudenez, arazo handiagoak dituzte. Ez dakit jendeak nola erantzungo duen, baina nik ilusio handia jarri dut honetan, eta uste dut ilusioz eta gogoz egiten den guztiak aurrera egiten duela. Dagoeneko irteera batzuk konfirmatuta ditugu, eta poliki-poliki hasiko da jendea animatzen. Bestalde, badakit hemengo uda oso motza dela, baina ikerketa bat egin dut, eta hilabeteko 22 egunetan inongo arazorik gabe atera daiteke itsasora. Nire asmoa jendeak disfrutatzea da. Beraz, itsaso txarra baldin badago, edota eguraldiak ez badu laguntzen, ez gara aterako.

• **Zenbat balio du horrelako txango batek?**

Uztailean eta abuztuan, 12.000 pezeta kobratuko dugu egun osoko bidaiarengatik, eta gainontzeko hilabeteetan 10.000 pezeta. Gauza guztiek bezala, honek ere prezio bat dauka, eta merkea ala garestia den norberak ikusi beharko du.

**Ainhoa Andonegi**



# KiliBaRRen

2001ko ekainaren 29a/VIII. urlea/75. zkia


## Eguraldi txarrak ez zituen mendarotarrak desanimatu lirinitate jaietan

### Trinitate Egunean jende ugari bildu zen meza ondoren herri kiroletaz gozatzeko



Trinitate jaiek euria ekarri bazuten ere, mendarotarrak berdin gozatu zituzten jaiak eta giro polita egon zen bertan. Jende kopururik gehiena Hirutasunaren Egunean bertan agertu zen. Meza nagusiaren ostean, bertsolariak eta herri kirolak ikusteko aukera izan zuten: Mugerza II. eta Mugerza III, aizkolariak neurtu ziren. Izeta aita-semeek, berriz, harria jasotzen duten trebetasuna erakutsi zuten. Astelehenean jaialdia eskaini zuten Ikastolako haurrek eta bertara hurbildutako guraso, lagun, ikasle eta herritarren kopurua ere kontuan hartzekoa izan zen.

## Hasi dira pasealeku berria egiteko obrak

### Lanak Eusko Jaurlaritzaren esku daude



Iaz eman ziguten Deba ibaiaren aidamenean, Mendaron, pasealekua egiteko proiektuaren berri. Panel handi batzuen bidez jakin genuen pasealeku honen nondik norakoak. Duela hilabete pasa hasi ziren obrekin eta guztia fase batean amaituko omen dute. Proiektua Eusko Jaurlaritzaren esku dago, Ur Sailaren esku, hain zuzen ere. Aspalditik zegoen leku honetan pasealekua egiteko asmoa eta hasi ostean, herritarrok denbora piska batean eskabadorak Mendaroko paisaiaren zati bat bezala ikustera ohitu beharko gara. Pasealekua Mendarozabaleko zubitik zubi berrira luzatuko da.

## ■ Uztailean jarduera ugari izango dugu Mendaron

Mendaroko Udalak antolatuta, ekaina amaitzeko falta zaizkigun egun apurretan eta uztailean zehar, jarduera ugari izango ditugu Mendaron: kirola, kultura edo erakusketak, izango da non aukeratua.

Ekainaren 30ean, rokodromoa, arku jaurtiketa eta tirolina izango ditugu, goiz eta arratsalde, Herriko Enparantzan eta frontoian. Egun berean, gaueko 22:00etan hasita, Zabale anaiek dantzaldia eskainiko dute Zelaikua plazan. Uztailaren 7an, antzerkia ikusteko aukera izango da gaueko 22:30ean, frontoian. Hilaren 14an, gaueko 23:00etan ere Ludi Berri taldearen eskutik, dantzaldia izango da Mendarozabaleko plazan eta 21ean, Expresion Sonora taldeak 60. hamarkada gogoraraziko digu gaueko 23:00etan hasita eskainiko duen kontzertuan.

## Mendarok musika eskoia izango du

Hilaren 21ean, Udaleko arduradunek eta musika eskolako elkarteko kideek bilera egin zuten. Jakin dugunez, Mendaroko Udalak baietza eman dio musika eskola sortzeko proiektuari. Udalak emandako dirulaguntzarekin atera ahal izango da aurrera proiektu hau.

Musika eskolarako Iokala Mendaroko Kultur Etxea izango da. Matrikulazioei buruzko informazioa Kultur Etxean izango duzue uztailaren 2, 3 eta 4an, arratsaldeko 19:00tik 20:OOra.


KiliBaRRen Kolaboratzaileak: Edurne Olazabal, Lurdes Rodriguez eta Enetz Ezenarro.
Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

BADA URTEBETE INGURU MENDARON GAZTETXEA SORTZEKO BEHARRAREN 1NGURUAN GAZTE MUGIMENDU BAT GARATZEN ARI DELA. BESTALDE, UDALAREN ALDET1K, GAZTELEKU BAT SORTZEKO ASMOA ERE HOR ZEGOEN, URTARRILEAN IZAN ZEN, HA1N ZUZEN ERE, UDALAK DEITUTA, GAZTELEKUAREN INGURUKO AZKEN BILERA. BERTAN, GAZTE ASANBLADAKOEK BERAIEN IRITZIA EMAN Z1ETEN UDALEKO ARDURADUNEI GAI HONEN 1NGURUAN. HARREZ GERO, UDALEKOEK GAZTELEKUAREN AUKERA BAZTERTU ZUTEN. AZKEN B1LERA HONETAN, EZ ZEN GAZTE ASANBLADAZ GAIN, MENDAROKO GAZTEDIAREN ORDEZKARIRIK AGERTU. BI ALDEEN ARTEKO NEGOZIAKETAK HASTEKO BEHARRA IKUSI ZEN.

# MENDARC

## "Gu ez gaude gaztiek esandako danakin ados eta gauza horiei buruz hizketan eitxeko, irailian 10erako bilera baterako deixa luzau diegu"

### Txomin Aranberri

**Udaleko Garteri eta Kultur zinegotzia**

"Urtarrilian Mendaroko gaztiei bilera batera diar ein ostian, Mendaron Gazteleku bat eitxeko genduan asmua albo batera laga genduan, gaztiek proiekto horrekiko interesik ez zeukela ikusitxa.



Gazte Asanbladakuekin hitz ein genduan bilera haretan, eta eurak Mendaron Gaztetxe baten biharra ikusten zabela esaten zaben. Proiekto bat aurkezteko esan gifluen eta hala ein zaben. Bertan, euren ustetan, Gaztetxiak zer izan bihar daban eta zela funtzionau bihar daban azaltzen dabe. Gu ez gaude ditxuen gauza danekin ados eta gauza horreri buruz hizketan eitxeko, irailian 10erako bilera baterako deixa luzau diegu. Oin momentuan oso lanpetuta gabiz herriko jaixen antolakuntza dala eta ez dala eta gero abuztuan oporretara juango da jendia eta zailaua izango da batzia".

## "Ez gaude oso gustura erakutsi daban jarreria] eitxen diguten sentsaziu

**Mendaroko Gazte Asanblada**

"Ezer baino lehen, mendarotarrei argi la nahi diegu, lehen Mendaroko Plataforma A1 boa zana, gaur Mendaroko Gazte Asanbla deitzen dala. Gure benetako helburua, Menc roko gaztiak batzia eta edozerren inguruan h ketan eitxeko gune bat sortzia da, gero hor



ateratzen diran proiektu eta ekitaldi desber nak aurrera eraman ahal izateko. Mendaron sozial askoren inguruko sentsibilidade fa haundixa dauala uste dogu, eta hori mobit biharra dauala ere bai.

